



**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2023/24

**Ikastegia** 231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa** 1. maila

**IRAKASGAIA**

25070 - Nortasunaren Psikologia

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Nortasunaren Psikologiaren oinarritzko helburua da ikasleari honako hau eskaintzea: jakintza-eremu honetan XX eta XXI mendeetan zehar agertu diren teoria nagusien ikuspegi eguneratu bat. Era berean, ezagutarazi nahi dira azken urteotan nortasunaren ikerketan eman diren ikerketa-aurrerapen nabarmenenak.

Honela, irakasgai honek bere oinarri teoriko, enpiriko eta etiko nagusienak nortasunaren psikologiaren hiru maila nagusienetan eman nahi ditu: nortasun-bereizgarriak, egokitzapen berezkoak eta identitatea.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

1. Nortasunaren azterketaren hainbat ikuspegi teoriko identifikatu eta elkarrekin erlazionatu.
2. Nortasunaren Psikologia definitzen duten egungo planteamenduak eta etorkizuneko ikuspegiak ezagutu.
3. Hainbat eremutan aplikatu diren nortasunaren kontzeptuak eta ereduak identifikatu.
4. Diziplinarekin zerikusia duen informazioa bilatu eta kudeatzeko gai izan, kasuak aztertzeko eta txostenak idazteko helburuarekin.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

**GAITEGI TEORIKOA**

1. Nortasunaren Psikologiari Sarrera
2. Nortasunaren neurketa eta ebaluazioa
3. Nortasunaren oinarri biologikoak
4. Nortasunaren teoria psikodinamikoak
5. Nortasunaren teoria kognitibo eta jokabidezkoak
6. Nortasunaren teoria humanista eta existentzialak
7. Nortasunaren teoria faktorialistak
8. Nortasunaren nahasmenduak

**GELA PRAKTIKA, TAILER ETA MINTEGIEN GAITEGIA**

**GELA PRAKTIKAK**

1. Gela Praktika: Neurotizismoa eta Antsietatea
2. Gela Praktika: Bost Handiak
3. Gela Praktika: Nortasuna eta motibazioak: Apertzepzio Tematikoko Testa
4. Gela Praktika: Nortasuna eta ahalegin pertsonalak
5. Gela Praktika: Self Publiko eta Pribatua
6. Gela Praktika: Nortasuna eta prozesu kognitiboak
7. Gela Praktika: Nortasuna eta prozesu emozionalak
8. Gela Praktika: Nortasuna eta pertsonarteko harremanak
9. Gela Praktika: Nortasuna eta Osasun Mentala

**TAILERRAK**

1. Tailerra: Enpatia
2. Tailerra: A, B eta C Motako Portaera Patroiak
3. Tailerra: Nortasuna eta Psikopatologia

**MINTEGIAK**

Mintegietan Bizitza Historiak monografikoki jorratuko dira.

**METODOLOGIA**

Eskola majistraletan irakasleriak gaitegi teorikoaren irakasgaiak azalduko ditu, eta gela praktika, tailer eta mintegietan



gaitegi praktikoko edukiak lantzeko ariketa askotarikoak erabiliko dira: rol-playing-ak, galdesorten betetzea eta talde-eztabaidak.

#### IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	32	4	18				6		
<b>Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a</b>	48	6	27				9		

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

#### EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

#### KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Test motatako proba % 50
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30

#### OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Nortasunaren Psikologiaren ebaluaziorako bi modu desberdin daude: a) ebaluazio mixtoa; eta b) azken ebaluazioa.

a) Ebaluazio sistema mistoa

Irakasgaiaren ebaluazio mistoa bi kalifikazio desberdinez osatzen da:

- Gela praktika, tailer eta mintegien ebaluazio jarraia, notaren %30a balioko duena.
- Azken froga, gaitegi teorikoari buruzkoa izango dena, eta test gisako galderez (%50) eta galdera irekiez (%20) osatuta egongo dena. Azken azterketa honek notaren %70a balioko du.

Azken emaitza bi noten batura izango da, eta biak gainditu behar dira irakasgaia gainditzeko. Ohiko deialdiko ebaluazio sistema mixtoan bi ataletako bat (teorikoa zein praktikoa) gainditzen ez bada, emaitza gordeko da ez-ohiko deialdirako, baina ez hurrengo ikasturtetako deialdietarako.

b) Azken ebaluazio sistema

Ikasleriak eskubidea izango du, ebaluazio mixtoan parte hartu izan zein ez, irakasgaiaren eduki teoriko eta praktikoen azken ebaluazio baten bitartez ebaluatua izateko, notaren %100 balioko duena. Azterketa honetako galderak %70 batean gaitegi teorikokoak izango dira, eta %30 batean gaitegi praktikokoak.

Ohiko deialdiari uko egitea

Azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

#### EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Deialdi honetan azterketa bakarra izango da, eduki teoriko (%70) eta praktikoen (%30) galderekin osatua. Azterketa honek emaitzaren %100a balioko du.

#### NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Gaitegi teorikoaren gaiak lantzeko txosten bat utziko da kopistegian, ikasleek erosteko. Gela praktika, tailer eta mintegietarako materiala eGelan zein kopistegian egongo da eskuragarri.

#### BIBLIOGRAFÍA

##### Oinarrizko bibliografia

- Feist, J. eta Feist, G. J. (2006). Teorías de la personalidad (6, 9, 10, 11, eta 12 kapituluak). Madril: McGraw-Hill.  
Guerra, J., Haranburu, M. y Sainz de Murieta, L. M. (1998). Nortasunaren Psikologia (1. kapitulua). EHU: Argitalpen Zerbitzuak.  
Larsen, R. J. eta Buss, D. M. (2008). Nortasunaren Psikologia. Giza izaerari buruzko jakintza-eremuak. (7. eta 19. kapituluak). Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak.

##### Gehiago sakontzeko bibliografia

- Allport, G. W. (1986). La personalidad. Herder.  
Andrés, A. (2016). La personalidad. Editorial UOC.  
Brody, N. y Ehrlichman, H. (2000). Psicología de la Personalidad. Prentice-Hall.  
Carver, C.S. y Scheier, M.F. (2013). Teorías de la personalidad. (7ª Ed.). Pearson.



- Cattell, R. B. (1972). El análisis científico de la personalidad. Fontanella.  
Cattell, R. B. y Kline, P. (1982). El análisis científico de la personalidad y la motivación. Pirámide.  
Eysenck, H. J. y Eysenck, M. W. (1987). Personalidad y diferencias individuales. Pirámide.  
Fromm, E. (1982). El miedo a la libertad. Paidós.  
Fromm, E. (1999). El arte de amar. Paidós.  
González, J. L. (1987). Psicología de la personalidad. Biblioteca Nueva.  
Hampson, S. E. (1982). La construcción de la personalidad. Paidós.  
Horney, K. (1987). La personalidad neurótica de nuestro tiempo. Paidós.  
Kelly, G. A. (2001). Psicología de los constructos personales. Textos escogidos. Paidós.  
Labrador, F. J. (1984). Los modelos factoriales biológicos en el estudio de la personalidad. DDB.  
Liebert, R. M. y Liebert, L.L. (1999). Personalidad. Thomson.  
May, R. (2011). Amor y voluntad. Gedisa.  
Mischel, W. (1968). Personalidad y evaluación. Trillas.  
Mischel, W. (1986). Teorías de la personalidad. McGraw Hill.  
Moreno, B. (2007). Psicología de la Personalidad. Procesos. Thomson.  
Pelechano, V. (1996). Psicología de la Personalidad. Ariel.  
Pervin, L. A. (1996). La ciencia de la personalidad. McGraw-Hill.  
Quintana, G. (1996). La psicología de la personalidad y sus trastornos. Editorial CCS.  
Rogers, C. (1961). El proceso de convertirse en persona. Paidós.  
Staats, A. W. (1997). Conducta y personalidad. Conductismo psicológico. Desclee de Brouwer.

### Aldizkariak

British Journal of Projective Psychology and Personality Study  
European Journal of Personality  
Journal of Abnormal Psychology  
Journal of Consulting and Clinical Psychology  
Journal of Personality  
Journal of Personality and Social Psychology  
Journal of Personality Assessment  
Journal of Rational-Emotive and Cognitive-Behavior Therapy  
Journal of Social and Personal Relationships  
Personality and Individual Differences  
Personality and Social Psychology Bulletin  
Personality and Social Psychology Review  
Self and Identity  
Social Behavior & Personality  
Zeitschrift für Personalpsychologie

### Interneteko helbide interesgarriak

European Association of Personality Psychology (EAPP): <https://eapp.org/>  
World Association for personality Psychology (WAPP): <https://www.perpsy.org/>

### OHARRAK

Irakaskuntza presentziala emateko baldintzak betetzen ez badira, eta irakasgaiaren ebaluazioak irakaskuntza gidaren eta EHU Edonondik plataformaren azalpen eta epeak bete ditzan, honako aldaketak egingo lirateke:

#### Ebaluazio mistoa

Ebaluazio mota honetan, eskola teorikoak zein gela-praktika, tailer eta mintegiak irakaskuntza ez-presentzialera moldatuko dira. Azken frogari dagokionez, irakaskuntza presentzialeko azterketa bera izango da, baina dagokion plataformaren birtualaren bitartez egingo da.

#### Azken ebaluazioa

Arestian deskribatutako prozedura berbera erabiliko litzateke ere azken ebaluazioaren kasurako.

Azterketok iraun bitartean, irakasleak espazio birtualean konektatuta egongo dira, ikasleen galdera eta zalantzak argitzeko.